# GORABIDE

Nº 304 Zk.
2022EKO OTSAILA
FEBRERO DE 2022

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA


INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

**Bizkaiko baliabideen gida**
**Guía de recursos en Bizkaia**
pg. 4-5 or.




**2021eko albisterik onenaren saria**
**Premio a la mejor noticia de 2021**
pg. 7 or.



**Erakusketa Sopuertan**
**Exposición en Sopuerta**
pg. 8 or.

# ¡CUMPLIMOS 60 AÑOS!




# 60 URTE BETE DITUGU!



## Pazko oporrak Imserso eta Plena Inclusión erakundeekin 6. or.

## Vacaciones de pascua con el Imserso y Plena Inclusión pg. 6


GORABIDE

ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
gorabide.com | facebook.com/gorabide | twitter.com/gorabide | youtube.com/gorabide | instagram.com/gorabide



Laguntzen du
Colabora
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Celebramos nuestro 60 aniversario poniendo en valor la trayectoria y el futuro de nuestra asociación

***Bajo el lema 'Gorabide 6.0', vamos a desarrollar un programa de actividades que vinculen cada década con uno de nuestros grupos de interés, a través de un enfoque de participación comunitaria por poblaciones de Bizkaia***

Ya han pasado 60 años desde aquel 1962, cuando un grupo de familias de personas con discapacidad intelectual de Bizkaia, convocadas por el doctor Ramón Zumárraga, pusieron las primeras piedras de lo que hoy es Gorabide. Seis décadas en las que, curiosamente, en cada una han ido teniendo protagonismo cada uno de los colectivos que configuran lo que podríamos denominar el ecosistema Gorabide: personas con discapacidad intelectual, familias, profesionales, voluntariado, instituciones y otras entidades.

Por eso, en la celebración de este aniversario, vamos a reflejar la importancia que ha tenido cada grupo en una década determinada: los primeros pasos de las familias en los años 60, la profesionalización de los 70, el empuje del voluntariado en los 80, la alianza con la administración en los 90, nuestra participación en el crecimiento del tercer sector a principios del siglo XXI, y el empoderamiento de las personas con discapacidad intelectual que estamos viviendo durante la última década.

> Este año es nuestro 60 aniversario.
> Lo queremos celebrar contando la importancia que han tenido en estos años personas usuarias, familias, profesionales, voluntariado, instituciones y entidades.
> Cada uno de esos grupos será protagonista de un mes.
> Y haremos actividades para que se pueda sumar toda la sociedad.

### Trayectoria y futuro

Bajo el lema 'Gorabide 6.0', las actividades pondrán en valor no sólo la trayectoria de nuestra asociación, sino también el futuro que tenemos por delante. Tendrán un enfoque de participación comunitaria y no supondrán ningún gasto añadido al presupuesto anual aprobado por la asamblea. Para idear la programación, hemos configurado un grupo de trabajo compuesto por representantes de familias, personas usuarias, profesionales y voluntariado.

Este mes de febrero, lo dedicamos a las familias, como protagonistas del origen de Gorabide y garantes de su futuro. En abril, abordaremos la trayectoria y experiencias personales de profesionales. En junio, pondremos en valor la colaboración de nuestras personas voluntarias. En septiembre, coincidiendo con el Día Gorabide, reconoceremos las alianzas que mantenemos con instituciones públicas y otras entidades, así como nuestra contribución al sistema de servicios sociales. Y ya en diciembre, vinculado al Día Internacional de las Personas con Discapacidad, pondremos el cierre al 60 aniversario tratando el empoderamiento de las personas con discapacidad intelectual.

### Medidas de prevención

Las actividades que vayamos programando se adecuarán a las medidas de prevención que establezcan las autoridades competentes, en función de la situación epidemiológica de cada momento.

**Más información: gorabide.com/60aniversario**





# Gure 60. urteurrena ospatzen dugu gure elkartearen ibilbideari eta etorkizunari balioa emanez

***'Gorabide 6.0' lelopean, hamarkada bakoitza gure intereseko talde batekin lotuko duen jarduera-egitaraua osatuko dugu, eta Bizkaiko herrietako komunitatearen parte hartzera bideratuta egongo da***

> Aurten 60. urteurrena ospatzen dugu.
> Urte hauetan zehar erabiltzaileek, familiek, profesionalek, boluntarioek, instituzioek eta erakundeek izan duten garrantzia azalduz ospatu nahi dugu.
> Talde horietako bakoitzak izango du protagonismoa hilabete batean.
> Eta gizarte osoak parte hartu ahal izateko jarduerak egingo ditugu.

60 urte igaro dira jada 1962an Bizkaiko adimen desgaitasuna zuten pertsonen familia-talde batek Ramón Zumarraga doktorearen eskutik Gorabideren lehen zimenduak jarri zituenetik. Sei hamarkada horietan, bitxia bada ere, Gorabide ekosistema dei genezakeena osatzen duten kolektiboetako bakoitzak izan du protagonismoa: adimen desgaitasuna duten pertsonek, senideek, profesionalek, boluntarioek, erakundeek eta beste erakunde batzuek.

Horregatik, urteurrena hau ospakizunean, talde bakoitzak hamarkada jakin batean izan duen garrantzia nabarmenduko dugu: 60ko hamarkadan familiek emandako lehenengo urratsak, 70eko hamarkadako profesionalizazioa, 80ko boluntarioen bultzada, administrazioarekin lortutako aliantzak 90eko hamarkadan, XXI. mendean hirugarren sektorearen hazkundean izan dugun parte-hartzea eta azken hamarkadan adimen desgaitasuna duten pertsonak lortzen ari diren ahalduntzea.

### Ibilbidea eta etorkizuna

'Gorabide 6.0' lelopean, jarduerek gure elkartearen ibilbideari ez ezik, aurretik dugun etorkizunaren garrantziari ere balioa eman nahi diegu. Komunitatearen parte-hartzera bideratuta egongo dira eta batzarrak onartutako urteko aurrekontuak ez du gastu gehigarririk izango. Programazioa asmatzeko, lantalde bat eratu dugu, familien, erabiltzaileen profesionalen ordezkariek eta boluntarioen ordezkariek osatua.

Otsail hau familiei eskainiko diegu, Gorabideren jatorriaren protagonista eta etorkizunaren bermea baitira. Apirilean, profesionalen ibilbidea eta esperientzia pertsonalak jorratuko ditugu. Ekainean, gure boluntarioen lankidetzaren garrantzia nabarmenduko dugu. Irailean, aldiz, Gorabide Egunarekin batera, erakunde publikoekin eta beste erakundeekin ditugun aliantzei aitortza egingo diegu, baita gizartezerbitzuei egiten diegun ekarpenari ere. Eta, abenduan, Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna dela eta, 60. urteurrena borobilduko dugu adimen desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea jorratuz.

### Prebentzio-neurriak

Une bakoitzeko egoera epidemiologikoaren arabera, autoritate eskudunek ezartzen dituzten prebentzio-neurrietara egokituko dira urteurrena ospatzeko programatzen ditugun jarduerak.

**Informazio gehiago: gorabide.com/60urteurrena**

# RECURSOS PARA DISCAPACIDAD INTELECTUAL EN BIZKAIA

**Guía de instituciones y entidades a las que dirigirse para planificar los apoyos presentes y futuros de las personas con discapacidad intelectual y sus familias. Nuestro servicio BBK SAIOA GORABIDE realiza un itinerario adaptado a cada persona.**

Servicio
BBK SAIOA GORABIDE
Zerbitzua
administracionsaioa@gorabide.com
Tel. 94 453 90 86

# ADIMEN DESGAITASUNERAKO BALIABIDEAK BIZKAIAN

**Adimen desgaitasuna duten pertsonen eta beren familien egungo eta etorkizuneko laguntzak planifikatzeko nora jo behar den jakiteko elkarte eta erakundeen gida. Gure BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuak pertsona bakoitzaren arabera egokitutako ibilbidea diseinatzen du.**

## Reconocimientos iniciales Diputación Foral de Bizkaia.

- **Reconocimiento de discapacidad que incluya valoración de movilidad y trasporte.**
- **Valoración del grado de dependencia.**
- **Familia numerosa.**

## Lehenengo aitorpenak Bizkaiko Foru Aldundia.

- **Desgaitasunaren ebaluazioa, mugikortasunerakoa eta garraioa erabiltzekoa barne.**
- **Mendekotasun graduaren ebaluazioa.**
- **Familia ugaria.**

## Servicios

- **Residencias y viviendas** (estancias temporales y permanentes)**:** Diputación Foral de Bizkaia, Gorabide y otras entidades.
- **Centros de día** (temporales o permanentes)**:** Diputación Foral, Gorabide y otras entidades.
- **Respiro familiar de fin de semana en CAD:** Diputación Foral de Bizkaia y Gorabide.
- **Ocupacionales y empleo:** Diputación Foral, Lantegi Batuak y otros.
- **Educación y formación:** Gobierno Vasco y otras entidades.
- **Salud:** Osakidetza.
- **Ocio y tiempo libre:** Gorabide y otros.
- **Ayuda a domicilio:** Ayuntamientos.
- **Teleasistencia:** Gobierno Vasco (BetiON).
- **Atención temprana:** Diputación Foral de Bizkaia.
- **Transporte adaptado:** Bidaideak y otros.
- **Programa Zainduz:** Diputación y ayuntamientos.

## Zerbitzuak

- **Egoitzak eta etxebizitzak** (Aldi baterako egonaldiak eta egonaldi iraunkorrak)**:** Bizkaiko Foru Aldundia, Gorabide eta beste entitate batzuk.
- **Eguneko zentroak** (aldi baterakoak edo etengabekoak)**:** Aldundia, Gorabide eta beste batzuk.
- **Eguneko zentroan asteburuetan familien atsedenaldia:** Foru Aldundia eta Gorabide.
- **Zereginetako eta enplegurako zerbitzuak:** Foru Aldundia, Lantegi Batuak eta beste batzuk.
- **Hezkuntza eta heziketa:** Eusko Jaurlaritza eta beste entitate batzuk.
- **Osasuna:** Osakidetza.
- **Astialdia eta aisia:** Gorabide eta beste batzuk.
- **Etxez etxeko laguntza:** Udalak.
- **Telelaguntza:** Eusko Jaurlaritza (BetiON).
- **Arreta goiztiarra:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Garraio egokitua:** Bidaideak eta beste batzuk.
- **Zainduz Programa:** Aldundia eta udalak.

## Formación familiar y participación asociativa

Gorabide y otras entidades.

## Familien prestakuntza eta elkartean partaidetza

Gorabide eta beste entitate batzuk.

## Grupos de autogestión

Gorabide y otras entidades.

## Autogestoreen taldeak

Gorabide eta beste entitate batzuk.

## Medidas institucionales de apoyo para el ejercicio de la capacidad jurídica

Futubide o Instituto Tutelar de Bizkaia.

## Gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko neurri instituzionalak

Futubide edo Bizkaiko Tutoretza Erakundea.

## Movilidad

- **Subsidio de movilidad, compensación por transporte, exención del impuesto de matriculación, reducción en el pago de IVA:** Diputación Foral de Bizkaia.
- **Exención del impuesto de circulación, tarjeta de OTA y tarjeta para la utilización de espacios de aparcamiento reservado:** Ayuntamientos.
- **Ventajas el el uso de medios de transporte público:** Consorcio de Transportes, Bilbobus, Bizkaibus, Metro Bilbao y Renfe.

## Mugikortasuna

- **Mugikortasun sorospena, garraio konpentsazioa, ibilgailuen matrikulazio zergaren salbuespena, BEZ murrizketa:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Zirkulazio zergaren salbuespena, TAO txartela eta erreserbatutako aparkaleku txartela:** Udaletxeak.
- **Abantailak garraio publikoetan:** Garraio Partzuergoa, Bilbobus, Bizkaibus, Metro Bilbao eta Renfe.

## Trámites jurídicos

**Designación de medidas de apoyo para el ejercicio de la capacidad jurídica:** Fiscalía y juzgados.

**Protección patrimonial:** Escritura ante notario.

## Izapide juridikoak

**Gaitasun juridikoa gauzatzeko beharrezko neurriak izendatzea:** Fiskaltza eta epaitegiak.

**Ondarea babestea:** Notario aurreko eskritura.

## Recursos económicos

### AYUDAS

- **Productos de apoyo** (sistemas de comunicación, sillas de ruedas, prótesis...)**:** Gizatek (Diputación Foral de Bizkaia) y Osakidetza.
- **Conciliación de vida laboral y familiar:** Gobierno Vasco.
- **Desgravaciones/deducciones IRPF:** Diputación Foral de Bizkaia.

### PENSIONES

- **Invalidez** (no contributiva) **y Fondo de Bienestar Social:** Diputación Foral de Bizkaia.
- **Orfandad, jubilación, viudedad y en favor de familiares:** Seguridad Social.

### PRESTACIONES

- **Cuidado en el entorno familiar** (dependencia)**, prestación vinculada a servicio** (dependencia)**, asistencia personal** (dependencia)**:** Diputación Foral de Bizkaia.
- **Por hijo o hija a cargo:** Seguridad Social.

## Baliabide ekonomikoak

### LAGUNTZAK

- **Laguntzeko produktuak** (protesiak, gurpil-aulkiak, komunikazio sistemak...)**:** Gizatek (Bizkaiko Foru Aldundia) eta Osakidetza.
- **Lana eta familia bateragarri egiteko:** Eusko Jaurlaritza.
- **Desgrabazioak eta kenkariak PFEZ:** Bizkaiko Foru Aldundia.

### PENTSIOAK

- **Baliaezintasuna** (kotizazio gabekoa) **eta Gizarte-Ongizateko Fondoa:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Zurztasuna, erretiroa, larguntza eta familiakoen aldekoa:** Gizarte Segurantza.

### PRESTAZIOAK

- **Familiaren ingurunean zaintza** (mendekotasuna)**, zerbitzu publikoari lotutako prestazioa** (mendekotasuna) **eta pertsonalerako laguntza** (mendekotasuna)**:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Seme-alaba kargura izateagatik:** Gizarte Segurantza.

## Servicios específicos de Gorabide

- Programas de comunicación eficaz, envejecimiento, sexualidad, duelo, calidad de vida familiar o discapacidad intelectual ligera.
- Orientación infanto-juvenil, apoyo social, psicológico y psiquiátrico.

## Gorabideko zerbitzu espezifikoak

- Programak: komunikazio eraginkorra, zahartzea, sexualitatea, dolua, familia-bizitzaren kalitatea edota adimen desgaitasun arina.
- Haur-gazteentzako orientazioa, laguntza soziala, laguntza psikologikoa eta laguntza psikiatrikoa.

# Pazko oporrak Imsersorekin eta Fevasekin

***Alfaron (Errioxa) edo Comillasen (Kantabria) astebete igarotzeko 38 plaza eskaintzen ditugu***

Aurten, Imsersok pazko oporretarako dirulaguntzak berreskuratu ditu eta 38 plaza eskain ditzakegu, Plena Inclusiónen oporren eskaintzan barruan. Bi txanda egongo dira: bat Alfaron (Errioxa) eta beste bat Comillasen (Kantabria). Programa honetan izena emateko, 16 urte baino gehiago eduki, %33ko edo gehiagoko desgaitasun maila izan eta Gorabidera eskaera behar bezala beteta entregatu edo bidali beharko da epe barruan, beharrezkoa den dokumentazio guztiarekin batera. Tokiak mugatuak direnez, irizpide hauek ezarri dituzte Imsersok eta Plena Inclusiónek:

- Desgaitasun handiagoa = %20.
- Beharrizan sozioekonomikoa = %15.
- Familia ugaria = %10.
- Aurreko deialdietan parte hartu ez izana = %30.
- Familiaren atseden beharrizana = %10.
- Astialdi Zerbitzuan parte-hartzea = %15.

Zure e-mailean intereseko informazio hau eta beste batzuk jaso nahi badituzu, harpidetu zaitez: gorabide.com/harpidetza.

**Derrigorrezko dokumentazioa**

- Jatorrizko eskaera beteta (ez dute balio fotokopiek edota eskaneatutako kopiek).
- Desgaitasun-ziurtagiriaren fotokopia eta NANren fotokopia (ez iraungia).
- Hala badagokio, legezko ordezkariaren NANren fotokopia (ez iraungia).
- Familia ugarien kasuan, hala adierazten duen tituluaren fotokopia.

Convocatoria de Actuaciones de Turismo Imserso - Plena Inclusión

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE DERECHOS SOCIALES Y AGENDA 2030 · SECRETARÍA DE ESTADO DE DERECHOS SOCIALES · IMSERSO

FEVAS Plena inclusión Euskadi

Imserso - Plena Inclusión Turismo Jardueren Deialdia

**Fecha de los viajes:**
Del 19 al 25 de abril
(7 días / 6 noches)

**Cuota por persona:**
Pendiente de conocer el importe de la subvención. El precio definitivo se publicará en nuestra web: **gorabide.com/pascua-2022**.

**Bidaien data:**
Apirilaren 19tik 25era
(7 egun / 6 gau)

**Pertsona bakoitzeko kuota:** Dirulaguntzaren zenbatekoa zen den jakiteke dago. Gure webgunean argitaratuko dugu behin betiko prezioa: **gorabide.com/pazko-2022**.

**Plazo de solicitud**

**Cuándo:** Del 7 al 21 de febrero.

**Horario:** De 9:00 a 17:30.

**Dónde:** Servicio de Tiempo Libre de Gorabide. c/ Licenciado Poza nº 14, 2º - 48011 Bilbao.

Comunicación de **plazas admitidas: primera semana** de **marzo**.

**Eskatzeko epea:**

**Noiz:** Otsailaren 7tik 21era.

**Ordutegia:** 9:00etatik 17:30etara.

**Non:** Gorabideko Astialdiko Zerbitzua. Poza Lizentziatua 14, 2 48011 Bilbao.

**Onartutako tokien** jakinaraztea: **martxoaren lehenengo astean**

# Vacaciones de pascua con Fevas y el Imserso

***Ofrecemos 38 plazas para pasar una semana en Alfaro (La Rioja) o Comillas (Cantabria)***

Este año, el Imserso ha recuperado las subvenciones para vacaciones de pascua, y podemos ofrecer 38 plazas, incluidas en la oferta de vacaciones de Plena Inclusión. Serán dos turnos: uno a Alfaro (La Rioja) y otro a Comillas (Cantabria). Para inscribirse en este programa, hay que ser mayor de 16 años, tener un grado de discapacidad igual o superior al 33% y entregar o enviar a Gorabide la solicitud correctamente rellenada, en plazo y con toda la documentación necesaria. Como las plazas son limitadas, el Imserso y Plena Inclusión han establecido estos criterios:

- Mayor discapacidad=20%.
- Necesidad socioeconómica=15%.
- Familia numerosa=10%.
- No haber asistido a convocatorias anteriores=30%.
- Descanso familiar=10%.
- Participación en el Servicio de Tiempo Libre: 15%.

Si quieres recibir en tu e-mail esta y otras informaciones de interés, suscríbete: gorabide.com/suscripcion.

**Documentación obligatoria**

- Solicitud original (no sirven fichas fotocopiadas ni escaneadas).
- Fotocopia del certificado de discapacidad y del DNI (no caducado).
- Si existe representante legal, fotocopia de su DNI (no caducado).
- En caso de familia numerosa, fotocopia del título que lo acredite.




# Recibimos uno de los premios a las mejores noticias de 2021

La Asociación de Profesionales de Radio y Televisión de Euskadi nos ha concedido uno de los premios Berri Onak Sariak 2021 a las mejores noticias del año en Bilbao y Bizkaia, por la información que generamos en el Día Gorabide sobre experiencias positivas protagonizadas por personas con discapacidad intelectual durante la pandemia. Jon Chertudi, uno de los protagonistas de esa noticia al prepararse y aprobar el primer examen de una OPE para trabajar en la Diputación, recogió de manos del alcalde de Bilbao el galardón: una bola roja que nos reconocía como la mejor de las seis buenas noticias premiadas. El resto de reconocimientos fueron para Acambi, Gonzalo Quincoces, Gabriel Erkoreka, Calixto Bieito y Nilofar Bayat.

labur.eus/berri-onak-sariak-2021

# 2021eko albiste onenen sarietako bat jaso dugu

Euskadiko Irrati eta Telebistako Profesionalen Elkarteak 2021eko Berri Onak Sarietako bat eman zigun Bilboko eta Bizkaiko urteko albisterik onenarentzat, pandemian zehar adimen desgaitasuna duten pertsonek bizitako esperientzia positiboen inguruan Gorabide Egunean bildu genuen informazioagatik. Jon Chertudi, albiste horretako protagonistetako bat, Aldundian lan egiteko lehenengo oposizioa prestatu eta gainditzeagatik, golardoa jaso zuen Bilboko alkatearen eskutik: saritutako sei albisteetatik onenari aitortza egiteko bola gorri bat. Gainerako sariak Acambi, Gonzalo Quincoces, Gabriel Erkoreka, Calixto Bieito eta Nilofar Bayatentzat izan ziren.

labur.eus/berri-onak-sariak-2021

## LABURRAK BREVES

### miPlan, euskal berrikuntza bankuan

Innobasquek, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, bere kasu praktikoen eta berrikuntzaren bankuan sartu du gure miPlan gida, pertsona oinarri duen plangintza ezartzeko. Haien esanetan, “adimeneko eta garapeneko desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko metodologia berritzailea da, eta haien xedeetan eta bizitzako helburuetan oinarritzen da”.

### miPlan, en el banco de innovación vasco

Innobasque, la agencia vasca de innovación, ha incluido en su banco de casos prácticos e innovación nuestra guía miPlan para la implantación de la planificación centrada en la persona, como "una innovadora metodología de apoyo a las personas con discapacidad intelectual y del desarrollo basada en sus propias metas y objetivos vitales".

### Literatura-saria

Irune Sevilla Medina gure elkarteko erabiltzaile batek Certamen Literario Down Madrid lehiaketako sarietako bat irabazi du ‘La canción del viaje a Francia’ ipuin laburrarekin. Literatura-lehiaketa bat irabazteko txikitatik zuen ametsa bete du horrela.

### Premio literario

Irune Sevilla Medina, usuaria de nuestra asociación, ha ganado uno de los premios del Certamen Literario Down Madrid, con su cuento breve ‘La canción del viaje a Francia’, cumpliendo así el sueño que tenía desde pequeña de ganar un concurso literario.

GORABIDE

FEBRERO DE 2022 | Nº 304 Zk | 2022EKO OTSAILA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

## ARGAZKIA LA FOTO




**Angelines Calderón Sopuerta Egoitzako erabiltzaileak zentro horretan jarri ditu erakusgai bere sorkuntza artistikoak. Ehuntzen duen artilea eta mihiseak, markoak, taulak edo adarrak bezalako elementu gogorrak uztartzen ditu.**

**Angelines Calderón, usuaria de nuestra Residencia Sopuerta, ha expuesto en ese centro las composiciones artísticas que crea uniendo piezas de lana que ella teje, con elementos rígidos como lienzos, marcos, tablas o ramas.**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Otsailean, gure **Zurekin Programa**ren barruan, Lagungo Fundazioarekin batera 'mindfulness' eta familiari buruzko web-hitzaldia egingo dugu, eta beste bat gaitasun juridikoaren erabileraren inguruan Rafael Armesto abokatuarekin batera. Gainera, Kafeak Kide Artean topaketa; aho-hortzetako osasunari buruzko tailer presentziala Iratxe Aspiazu odontologoarekin; eta Artxandara funikularrean igoera, gure autokudeatzailea Montse Fernández gidariarekin, Familian Ondo Pasa programaren barruan; ere egingo ditugu. Bestalde, adimen desgaitasuna duten pertsonak protagonista dituzten **eraldaketa sozial**eko jardueren baitan, Lauaxeta Ikastolan eta Botikazar BHIn Oztopoak Hausten programako saioak eskainiko ditugu.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**
Emma Ballús, Familiekiko Esku-hartze arduraduna
emmaballus@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

En febrero, dentro de nuestro **Programa Contigo**, realizaremos una charla web sobre 'mindfulness' y familia, con Fundación Lagungo, y otra sobre el ejercicio de la capacidad jurídica, con el abogado Rafael Armesto. Además, habrá un encuentro de Cafés en Compañía; un taller presencial sobre salud bucodental, con la odontóloga Iratxe Aspiazu; y una subida a Artxanda en funicular, con nuestra autogestora Montse Fernández como guía, dentro del programa Diviértete en Familia. Por su parte, dentro de las actividades de **transformación social** protagonizadas por personas con discapacidad intelectual, ofreceremos sesiones del programa Rompiendo Barreras en el IES Botikazar y en Lauaxeta Ikastola.

**Más información e inscripciones:**
Emma Ballús, responsable de Intervención Familiar
emmaballus@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

D.L./L.G. BI-394-2014